



LOMLOE-i buruzko CC00en balorazioa

Lehen aurrerapena | 2020ko Azaroa

CCOOek LOMLOEri eskatzen diona

CCOOentzat LOE aldatzen duen Lege Organikoa (LOMLOE) onartzea oso garrantzitsua da, PParen erabateko gehiengoarekin eta parlamentuko beste inoren sostengurik gabe ezta hezkuntza erkidegoaena ere (langileen sindikatuena, gehiengo duen gurasoen elkartearena eta ikasleen erakundeena) sortu zen LOMCE indargabetzen baitu.

Gizartearen eta politikaren alderdi kontserbadorenen kanpainen gogoz bestera, lege berriaren aurka etengabe azaldu baitira eta gobernu sozialista batek lege bat egiteko saio bakoitzaren aurrean errepikatzen diren argudioekin, hots, LOMCE-ren aldeko adostasuna argi eta garbia, -teknikoki inklusiboak eta ekitatiboak ez diren printzipioetan oinarritua eta ideologikoki eskuin-muturrean kokatuta, politika- eta gizarte-gehiengo handi baten aho batezko errefusa eragin duena-, CCOOek hezkuntzarako eskubidea, ekitatea, inklusibitatea, partaidetza eta inbertsio publikoa zalbaldu eta sendotzen duen legeria abian jartzea premia kotzat jotzen du, pertsona guztientzat hezkuntza arrakastaren bermea baita.

Gure ustez, testu berriaren helburua ikasle guztien arrakasta lortzea da, ikastetxeak etengabe hobetzearen eta hezkuntza pertsonalizatuagoaren bidez, pertsona guztien aniztasunarenganako arretan eta baterako hezkuntzaren printzipioetan oinarrituta; eta baita hezkuntza konprensiboan ardatzen diren ekitatea, kalitatea eta sistemaren gaitasun inklusiboa indartzea ere.

Zein elementu jotzen dugu garrantzitsuagozat lege berri honetan?

1. LOMLOEek, lehen aldiz, hezkuntza sistema publikoa indartzeko garrantzitsuak diren ikuspegiak bere egiten ditu, hurrengo urteetarako aurreikusten diren erronkei aurre egiten gai izateko, Covid-19aren pandemiaren testuinguruan; hala nola: haurren eskubideak, Nazio Batuetako Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren arabera (1989) eta konbentzio honen aurreko eta ondorengo beste akordio internazionalak; Europar Batasunak eta Unesco-k 2020-2030 hamarkadarako ezarritako helburuak; baterako hezkuntzaren bidetik genero berdintasuna eta afektibitate eta sexu-aniztasunarenganako begirunea; 2030 Agendan ezarritakoarekin bat eginez, garapen jasangarriari arreta ematearen garrantzia eta hezkuntza jarduerarako horren garrantzitsu den estrategia digitala indartzeko beharra.

2. Hezkuntzaren ardatza ikasleen arrakasta da. Ikaskuntza estandarrak ezabatzen dira; gaitasunetan oinarritutako curriculum-a proiektatzen da, ikasketa eremuetan antolatua, malguagoa, akademizismo gutxikoa eta ikasleentzat eta irakasleentzat zabalegia eta itogarria ez dena eta, gainera, Estatuaren, AA.EE-en eta ikastetxeen artean partekatua. Ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta kurrikularra ez da garrantzi gutxiagokoa, bere espezializazioa saihestuz. Ildo beretik, bere kudeaketan hezkuntza erkidegoaren partaidetza berriro ere sustatzen da.

3.0 eta 3 urte bitarteko Haur Hezkuntzaren hezkuntza izaera eta konpentsatzailea indartzen du. DBHn ibilbide kurrikularrak ezabatzen ditu eta titulu bakarra berreskuratzen du. Eskolen eta sare publikoaren eta itunduaren arteko bereizketa saihestu eta mugatzen du. Lurraldeen arteko lankidetzak programak sustatu eta eskola landetar eta uhartekoak indartzen arreta berezia jartzen du.

4. Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren antolaketa malguago eta diziplinartekoagoa, banakako planen bidez, lehen etapatik bigarrenera igarotzea hobetuz. Orientabidea eta tutoretza-jarduera indartzen du. Errepikatzea ohiz kanpoko izango da. Hiru urtetako Batxilergo progresiboari aukera ematen dio. Lanbide Heziketako titulu berriak sortzen dira, DBHra bideratzeko aukera ematen duten Oinarrizko Mailaren heziketa zikloak hobetzen dira, LHrako sarbidea errazten du eta egitura modularra eta gaitasun-akreditazioa sustatzen ditu.

5. Espainiako hizkuntzak kohesio eragile modura hartzen dira, konstituzio-alorrera, autonomia estatuetara eta indarrean dauden araudietara itzuliz, ikasle guztiak koofizialak diren bi hizkuntzak menderatu ditzatela bermatuz. Europako Kontseiluak 2007an eta 2016an ezarritako hizkuntzaniztasunaren irizpideak bere gain hartzen ditu.

6. Hezkuntza erkidego guztiak Espainiako demokraziaren historiaren eta gure oroimen demokratikoaren ezagutza sakona eta kritikoa izateko beharra, hiritartasun osoa lortzeko emakumeen borroka nabarmenduz.

7. Genero berdintasuna eta koedukazioa, hezkuntza sistema osoaren ardatz bertebratzaile gisa.

8. Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen onespina Bigarren Hezkuntzako irakasle gisa.

9. Eskola kontseiluak onartzea ikastetxeetako gobernu organo gisa.

10. DBH eta Batxilergoko azken ebaluazioak kentzea.

11. Ikasle guztiak eskolatzean, inklusibitate printzipioa onestea, Nazio Batuetako Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 24.2. e) artikularen arabera, 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren laugarren Helburua bete ahal izateko eta, beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen horniduraz, printzipio horiek betetzeko eta hezkuntza bereziko ikastetxeak mantentzeko konpromisoa.

12. Hezkuntzako inbertsioaren gehikuntza nabarmena, beste gauzen artean, ekitaterako beharrezko neurriak lehenesteari eta ikastetxeetako hobekuntza jarraituari aukera emango diona. Gobernuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskumenen oreka berreskuratzen du. Eta, oso garrantzitsua, hezkuntza politikek berdintasun, osasungintza, enplegu, aniztasunerako arreta, etab... gizarte politikekin uztartzen ditu.

13. 1985tik irakaskuntza itunduaren funtsezko egitura mantentzen da; horregatik, ez gaude enpresarien eta kideko sindikatuen katastrofismoarekin ados. "Sexuen arabera bereizitako irakaskuntzaren" desberdintasunarenganako salbuespena ezabatzen da eta baita "eskari soziala" ere eta itunak onartu baino lehen horietarako lurzoru publikoa emateko debekua ezartzen da. Halaber, ikasleen harrerarekio, ikastetxeen programazioarekiko, partaidetzarekiko eta indargabetuta geratzen diren LOMCEn jasotzen diren beste neurriekiko berritasun interesgarriak aurreratzen dira.

Hezkuntza lege berriari zer eskatzen jarraitzen diogu?

CCOOen aldetik, dei egiten diogu koalizio Gobernuari, sektoreko ordezkaritza handiena duten sindikatuen adostasunarekin, irakasle lanbidearen erreforma integralari ekin diezaion. Erreibindikazio historikoa, legegintzaldiz legegintzaldi atzeratu egin dena. Irakasleak beren gizarte-, lan-, eta lanbide eskubideak eguneratuko dituen premiazko ekintza plan baten zain daude.

Halaber, sindikatuak kezka ikusten du, hezkuntzan egiten den inbertsio ahulagatik, 2021eko EAOetan jasotzen den europar funtsetatik mendekotasuna, bai gastuaren benetako tamainan bai burutu ondorengo azken zenbatekoan zalantza handiko elementu bat txertatzen baitu, aurrekontuek planteatzen duten gehitze nabarmena, beharrezkoa baino berandu datorrena, noiz etorriko diren eta zein baldintzetan ez dakigun funts batzuei fidantzan ematean. CCOOek legegintzaldi honetan BPG-aren %7 inbertitzeko beharra erreibindikatzeko jarraitzen dugu, funts europarren zenbatekoa edozein dela ere, Lege berriaren garapena ahalbidetu eta hezkuntza publikoaren aurkako murrizketa gordineko hamarkada leheneratzeko bidea hasteko.

CCOOek 6 eta 16 urteren artean derrigorrezko irakaskuntza etapa bakarra eskatzen jarraitzen du, bukatzean tutulazioaren beharrik gabe, irakasleentzako kidego bakarrarekin eta maguagoa den egitura kurrikularrarekin, behin betirako irakasgaien elkartzearekin, helburuen, gaitasunen, edukien, ebaluazioen eta abarren egitura klasikoarekin hautsiko duena. Ildo beretik, beste zenbait erakunderekin hezkuntza xedetarantz beste aurrerapauso bat gehiago emateko beharra partekatzen dugu, irakasgaien gaitetiko ikaskuntzak ardatz eginez. Sistemaren helburuen eta ikuspegiaren helburu orokorretatik sortuko den curriculum-a eta arlotan, nukleo tematikoetan eta lan proiektuetan garatuko dena, ikasturtea errepikatzea legearen testuaren benetako salbuespenari eta ez salbuespen erretoriko hutsari utzirik. Errepikatze arazoa emango balitz, erabat berezia den hezkuntza neurria, ez eskuratutako ikaskuntzak baino ez lirakeke berreskuratu behar eta ez errepikagai den ikasturtearekin zerikusia duten guztiak.

Bestalde, LOMCE-k ikasleen heziketa integrala ezereztu zuen, XXI. mendeko hiritarren prestakuntzarako behar diren funtsezko gaiak ardatzetik urrunduz. LOMLOEk ez du ikasleen pentsamendu kritikoa eta heziketa integrala bermatzeko beharrezkoa den oreka kurrikularra berreskuratzen.

Eskubideen eremu gisa, Espazio Europarra sendotzea eta aukeren eta hiritarren Europa baterantz aurrera egiteko beharrak curriculum-ean bigarren hizkuntzen errefortzua eskatzen du. LOMLOEk ez du, premia partekatu gisa, ikuspegi estrategiko hori onartzen, egungo ikasleei, etorkizuneko hiritarrei eskaintzen zaizkien aukerei lotuta delako.

Garrantzitsutzat jotzen dugu ere, metodologiaren alorrean beste aurrerapauso bat ematea. Zenbait metodologiak gaitasunean haztea oztokatzen dute. Lege berriak, proiektu eta problemen bidezko ikaskuntza bideratu behar du, lankidetzaren bidez, ordutegi itxi baten, irakasle baten, talde baten eta gai bakarraren ohizko gramatika gaitetuz.

Legeak, halaber, ratioak arintzearen aldeko apostu erabakiorra egin behar du. Zenbait hezkuntza etapetan, gaur egungoak bezalako gela masifikatu batek apostu kurrikular eta metodologiko hoberena suntsituta utz ditzake; baita, irakasleen eskola ordutegiaren barruan, irakaskuntza-lankidetzarako eta heziketa proiektu partekatuak abiarazteko esparruak eta denborak indartzearen alde.

LOMLOEk gizartearen sektore ezberdinetan ematen ari den aldaketa digitala kontuan hartu behar du eta baita hezkuntzan duen eragina ere. Pandemiaren hasieratik, ICTak irtenbide eremu gisa agertu zaizkigu, dudarik gabe, indartu behar direnak, osasun krisialdiak irakaskuntza ikaskuntza eredu klasikoari ezarri dizkion hezkuntza tentsioei erantzuteko. Krisialdian, pandemiaren eta ICTen arteko zerikusia hezkuntza kudeatzeko ahalegin hutsera murriztu da, argi eta garbi, ikuspegi erredukzionista bat, okerra, eta Espainiako hezkuntzaren funtsezko zenbait arazo ezkututzen duena: curriculum errukigabea, ezinezko ratioak, politika neoliberalen zenbait urteren ostean eskola publikoa ahuldua eta teknologia erabiltzen prestakuntza defizit handia duen irakaslegoa. Teknologia hezkuntzarenganako zerbituzan, haurren eskubideen, ekitatearen eta arreta pertsonalizatuaren zerbitzuan jarri behar dira eta, azken batez, ikasle guztien heziketa arrakastaren zerbitzuan eta hau, etapa guztietan -derrigorrezkoan zen derrigorrezko ondorengoan- eredu didaktiko baten bitartez, ikuspegi global batekin, pertsonen heziketa integrala kontuan hartzen duena.

6 Oso garrantzitsutzat jotzen dugu ere LODEren 47. artikulua berreskuratzea, hezkuntza itunak oinarritzko irakaskuntza orokorrean baino eman ez daitezen, hauxe baita unibertsala eta derrigorrezko bakarra. Beraz, aipatu itunok murrizten hasi behar dira, eskaintza publikoa zabaldu eta indartu dadin, ikastetxe pribatu itunduei, nahi izanez gero, sare publikoan sartzeko legezko aukera emanaz.

Bestalde, beharrezkoa da adieraztea 86. artikulua aldaketan, ikasleak eskolatzean berdintasuna bermatzeari dagokiona, esaldi bat txertatzen dela -beltzez- gure ustetan soberan dagoena:

“1. Hezkuntza administrazioek ikasleak onartzeko arauak aplikatzean berdintasuna bermatuko dute. Honek, udalerrri edo lurralde esparru berbererako ikastetxe publiko eta pribatu itunduentzat eskolatze edo influentzia eremu berberak ezartzea eskatzen du, **irakasten dutenaren eta baimendutako eskola postuen arabera**”.

Eta soberan dago zeren, autonomia erkidegoaren arabera, publikoari pribatuari baino abantaila eman balitzaioke. Esaterako, Batxilergoan, autonomia erkidego batek itunduan plazak gehiagotzeko baimena ematen badu, -Madril, Murtzia, Gaztela eta Leon, etab...- eta publikoan ez, ikastetxe pribatuen alde egingo luke. Horrela, publikoa arazoak izango lituzke. Gure ustez, testua hobeto dago esaldi hori gabe; horregatik, ezabatzeko zuzenketa egoki litzateke.

Bestalde, Erljioa aukerazkoa izateak positibotzat jotzen dugu, hautabiderik eta batezbesteko notarako, ikasturte promoziorako eta beka lortzeko baliotasunik gabe; Dena den, garrantzizkotzat jotzen dugu ere, Batikanorekin ditugun Akordioak indargabetzea eta Erljioa, edozein sinestetan, curriculum-etik ateratzea. Pertsona bakoitzaren sinesmenetatik harantz, bake eta elkartasunaren kulturaren hiritarrak hezteko nahi duen hezkuntza sistema batentzat funtsezko osagaia da laikitza.

Hezkuntza lege berriak, xedapen gehigarri batean, hezkuntzarako eskubidea berreskuratzean eta ekitatea sendotzean udalen paperak duen garrantzia jaso beharko luke, beste zenbait administrazioekin

elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartuz, legezko aldaketa egokiak egiteko, tokiko erakundeekin, gaitasunekin eta baliabideekin, hezkuntza publikoa eta kalitatezkoa lortzen aktiboki esku hartzeko aukera ematen diezaieten.



Halaber, LOMLOEK ez du beketarako eta ikasteko laguntzetarako eskubidea onartzen, ikasleen eskubide subjektibo gisa, ezta eredu aldaketa ere eta Ministerioaren aldetik haiek esleitzeko modua arintzeko konpromisoa ere ez, familiek eta interesatuek ezer aurreratu ez dezaten, beraientzat edo bere familientzat arazoa izan daitekeena. Aldaketa hauek CC00ek legearen testuan txertatzeko eskatu dituen erreinbindikazioak dira, eta kontuan hartu ez direnak.

PSOE eta Ahal dugu alderdien arteko koalizio Gobernuari errege dekretuaren garapenean hezkuntza elkarte osoaren presentzia eraginkorra exijituko dio CC00ek, hezkuntza sistema berriztatzaileagoa eraikitzeari aukera ematea eta egungo egoerarekiko jauzi kualitatiboa izango dena. Pandemiak sistemaren egitura zorrotza hautsi du eta honek aldatzeko aukera ematen digu, gai bagara desberdin pentsatu eta inoiz eman ez den egoeran gaudela ulertzeko, inoiz ere ikusi ez dugun ikuspegitik begiratu behar dena. Hauxe da hezkuntza lege berriak bete behar duen helburu handia.

Joan den martxoaren 20ko negoziazio mahaiaren bileran, Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketaren Ministerioak Irakasleen Estatutuaren negoziazioa irekitzeko asmoa azaldu zuen.

CC00en aldetik, gai hori negoziatzea ezinbestekotzat jotzen dugu, gehienbat, LOMLOEren artikulatuaren barruan xedapen gehigarri bat ezartzen delako non, urtebete bateko epean, Gobernuari irakasle lanbidea legez arautzeko premiatzen zaion.



irakaskuntza